



## Prest dago guztia Azpeitiko Bertso Egunerako

Urtarrilaren 28an izango da Azpeitian aurtengo Bertso Eguna. Bertso bazkariak izango dira herriko hainbat elkartetan eta afaria ere bai gaueko saioaren aurretik. Txartelak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian daude salgai.

Urtea hastearekin batera, Bertso Eguna da bertsozaleentzat zita garrantzitsuenetako bat. Urtarrilaren 28rako egun osoko egitaraua prestatu du Azpeitian Bertsozale Elkartek.

11:30ean elkartu eta kalez kaleko poteoa izango da, libreko bertso saio irekiekin. Nahi duenak izango du kantatzeko aukera. Helburua bat bateko saioak sortzea da, lehen taberna giroan egiten zen bezala. Besterik gabe kantuan hasi eta bertsoez gozatu. Beraz, Azpeitira azaltzeko asmotan bazabiltzate kantatzeko ere prest joan, aukera izango da eta.

Bertso bazkariak Azpeitiko elkarteetan

Azpeitiko Udalaren eta herriko hainbat elkareren laguntza izango du Bertso Eguna. Hauek dira elkarte desberdinetan 14:30etik aurrera izango diren bertso bazkariak.

### 14:30ean bertso bazkariak elkarteetan:

- Txalintxo Elkarte, bertso saio musikatua:  
Maddalen Arzallus, Beñat

Gaztelumendi, Nerea Ibarzabal, Aitor Etxebarriazarraga.

Musikariak: Ixak Arruti eta Gari Otamendi.

Gai jartzailea: Ane Ezenarro.

- Oilagorra Elkarte, libreko saioa:  
Jone Uria, Sustrai Colina.

- Ziripot Elkarte, gaiekin eta bertso jarriekin:

Andoni Egaña eta Nerea Elustondo.  
Bertso jarriak: Oier Etxeberria, Irantzu Idoate.

Gai jartzailea: Imanol Artola "Felix".

- Zulo Zabal Elkarte, libreko saioa:  
Miren Artetxe, Saioa Alkaiza.
- Oilo Soro Elkarte, libreko saioa:  
Unai Iturriaga, Jexux Mari Irazu.

bertso jarrien txanda izango da. Honako bertsolari hauek ariko dira kantuan: Maialen Lujanbio, Eñaut Martikorena, Xabat Illarregi, Joanes Illarregi, Ander Fuentes "Itturri", Josune Aramendi, Aissa Intxausti, Ane Labaka, Peru Abarrategi, Maddi Aiestaran eta Sarai Robles.

Bazkari eta afarirako txartelak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian daude salgai eta norbaitek otordu beganoa beharko balu, idatz dezala aurrez bertsosarrerak@bertsozale.eus helbidera.



### MAIALEN LUJANBIO ZUGASTI

Iruñea, 2022-12-18  
Bertsolari Txapelketa  
Nagusiko irabazlearen agurra

Doinua: *Mando baten gainean I*

Herriak ta hizkuntzak zuten norantzari gai gehio lotu zaio lehengo ardatzari ta munduak hartu dun itxura latzari aurre egiteko, beraz, laguna altxa hadi! Bultza hainbat borroka ederren martxari kontrapisu eginez eskuin balantzari txapela bete indar mingaina dantzari borroka irabazteko desesperantzari!



Azpeitiko Elikagunean egingo da gaueko bertso afaria, xehetasunak [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian. //XDZ- Gari Garaialde

# Araba Kuadrillartekoan

**Urtarrilean hasiko da bi urtean behin egiten den Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa eta martxoaren 25ean jokatuko dute final handia Laudion.**

2010ean hasi, eta ordutik bi urtean behin antolatzen den txapelketa da Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketa. Txapelketa izena jartzen dioten arren Arabako bertsolaritzaren topaketa eta bertso eskolen igurtzia ere bada.

2023ko Kuadrilla Artekoon 12 taldek hartuko dute parte. 64 bertsolari ariko dira kantuan, 16 epaile bertsoak puntuatzen, 17 gai-jartzaile eta idatzizko 16 talde.

Formatu honetan hasi zirenetik Arabako bertso-eskolak liluratu eta bertsolaritzari beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera eman zien. Zapore eder hark hurrengo edizioak prestatzera bultzatu eta lehiarik gabea, eskualdekako topaketak, jolasa eta jokoa, finalak, amaierako festak, gozamina eta urduritasunak, bat bateko zein bertso jarrien taldeak, denen prestutasuna bultzatu zituen. 2023an ere hala izan dadila desio dute.

## Bat-batekoa

Hamabi talde osatu dira. Arabako eskualde, herri edo bertso kuadrilla edo bertso eskola bereko jendea dira taldeetako partaide.

Taldeetan gutxienez hiru bertsolari eta gehienez sei izango dira. Horiez gain, gai-jartzaileak, epaileak, arduradunak, kazetariak eta musikariek osatuko dute taldea. Guztira 11-14 lagun direlarik.

Lau liga izango dira. Liga bakoitzean hiru taldea arituko dira eta talde bakoitzak bi saiotan parte hartu beharko du. Ligako irabazlea finalerdira joango da eta beste bi talde sailkapenaren arabera.

Otsaila eta martxoan finalurrekoak jokatuko dituzte. Sei talde ariko dira guztira. Liga bakoitzeko irabazleak eta bi talde sailkapenaren arabera. Talde bakoitzak finalurreko bakar bat jokatu du.

Finala martxoaren 25ean jokatu da. Finalurreko bakoitza irabazi duten taldeek jokatu dute finala, hiru taldek, beraz. Puntuazio handiena lortzen duena izango da irabazlea.

## Idatzizko taldeak

Bat-bateko txapelketan kantatzen ez duen jendearekin osatuko dira taldeak eta aurten lehiatu egingo dira. Lagunartean bertsoak idatzi eta herrian antolatuko den saioan jendearen aurrean edo jendearekin kantatu beharko dituzte.

Arabako izaera desberdinetako 16 taldek hartuko dute parte. Euskara Elkartek, mintzalagun taldeak, lagun-kuadrillak, Bertso-Eskolak, gaztetxeak, musikariak...

Txapelketaren jarraipena eta informazio guztia [www.bertsozale.eus/eu/araba](http://www.bertsozale.eus/eu/araba) atarian izango duzue.



Maetzun aurkeztu dute Arabako Kuadrillartekoa. // XDZ

# Xalbat Alzugaray: "Gazteengandik eta gazteentzat sortu ginuen Bertsuxurla"

**Bertsoz josi dituzte urtarrileko ostiralak Xiberua, Lapurdi eta Baxe-Nafarroan. Euskal Herriko bertsolari gazteekin osatu duten txapelketa izan da Bertsuxurla. Xalbat Alzugaray antolatzaile taldeko kidearekin hitz egin dugu ekimenaren berri izateko.**

## Zer da Bertsuxurla?

Euskal Herri osotik etorririko bertsolari gazteen arteko txapelketa informala da Bertsuxurla. Bikoteka parte hartzen dute bertsolariak, hiru saio, hiru bikote saio bakoitz eta finala nun saio bakoitzeko bikote irabazleak izanen diren. Saio informalak eta umoretik tiratuak ari dira izaten.

## Nola bururatu zitzaizuen ekimen hau sortzea?

Egia erran, Txapelketa Nagusiko bidean otu zitzaigun ideia. Nahi ginuen zerbait gazteengandik sortuko zena eta gazteentzat zoin bertsozale ororentzat idekia izanen zena, zerbait informala eta irringarria.

## Nola osatu dituzue bikoteak?

Lurraldeka hartu ditugu bertsolari

gazteak, 16 eta 22 urte artekoak eta zozketak erabaki du bikoteen osaketa. Zuberoako bertsolariak ez dugu atxeman izan ahal aldiz.

## Ze ekarpen egin nahi dio Bertsuxurlak Iparraldeko bertsozaintzari?

Bertsuzaletasuna sustatu nahi dugu ekimen berri hau, zoin euskararen beste arnagune bat sortu hala, hain bertsozalea ez den jendea formatu honekin, afari ondoko saio informalekin bertsozalea dugu helburu.

## Parte hartzaileek nola hartu dute ekimena?

Biziki positiboki hartu dute ekimenaren berria eta plazerrekin parte hartzen dute txapelketa hontan. Bestalde, plaza hori ere eskaintzeaz biziki kontent dira.

## Nolako giroa izan duzue saioetan?

Biziki giro goxoa, afal ondotik umorezko gaiek eta bertsolariak lagundurik. Jendea erantzuten ari da ekimen honi, saio laburren formatua ere sustatuz gero, zitzu bizian pasatzen delako afal ondoko momentu hori. Oro har, irriz eta gogoz dago jendea.

## Orain artekoaz ze balorazio egiten duzue?


Balorazio positiboa, zinez, jendeak erantzuten duelako afari ondoko formatu honi eta gure aldetik ere, biziki aberasgarria zaigu sortzen ari garen sarea.

## Aurrera begira berriz antolatzeko asmorik?

Ez dakigu oraino bainan horrela segitzen badu, polita izanen zen ekimen hau



Urtarrilaren 27an jokatuko da Bertsuxurlako finala Hendaian. //XDZ-Alberto Eloseg



## Puntua jarrita

HODEI MUNDUATE

Bertsoaren deskribapen orokorrez haratago, egun, zenbait adarkadura beha daitezke bertsoaritzan, bai eta halabeharrez bertsoari perfiletan ere. Zehazki hauxe dela uste dut bertsoaritzan hain aberatsa bilakatzen duena, hainbeste egoera eta jendarte ezberdinetan bertsoak bere lekua izatea.

Zenbaitetan, bertsozaleen artean txapelketek bertsoaren garrantzia osoa berarengan hartzen dutenaren itxura izaten du. Horien begi-bistako hedadura eta garrantzia kontuan izanik, logikoa izan arren begi asko bertan jarriak egotea, badirudi bitarte horretan beste bertsoak ez dela abesten, bai eta txapelketa nagusia amaitzean bertsoa arnas gabe gelditzen dela.

Horren harira, lagunarteetan bertso librea ikasten dihardutenak, bertso eskoletan gustu hutsez bertsoan aritzen diren edozein adinetako bertsoariak edota plazaz-plaza eta herriz-herriz dabilen bertsoari gazteak ekarri nahi nituzke argira. Bertsoaritzaren adarren sustrai kulturalak errotzen baitira aipatuak bezalako eremuetan, bertsoak lehiatzen haragoko formak hartzen baititu.

Sarritan, esandako bertsoariak, "sasi bertsoaritzat" joak dira, agian lehiaketetara pausoa eman ez denean, edo ospe mailatxo bat lortu ez duenean bertsoariak, baina esango nuke foko handienetatik at dauden zutabe batzuk dituela bertsoaritzak. Askotan bertsoari hitzetik kanpo geratzen direnez osatutako zutabeak hain zuzen ere. Beraz nire deskribapenez edozein eremu, asmo zein formatan zaletasunetik bertsoan aritzen den egilea da bertsoari.

Nire herrikide den eta txikitatik bertsoaritzan bidelagun izan den, bai irakasle moduan bai eta bertsoan aritzeko lagun moduan, Aitor Irastorza zaldibiar bertsoariari honako galderaz puntua jarri nahi nioke orain, beraz: Aitor, zer gelditzen zaio bertsoaritzari gertatzeke? Zer dakarkio etorkizunak?

# Koplak

## Badator Bapatean 2022

Bertsolaritzak urte bakoitzean gandi eragin duen uzta jasotzen dute Bapatean saileko liburuek; izan saio guztiei buruzko informazioa, izan irizpideen arabera hautatutako orotariko bertsoaldiak. Uneotan 2022ko bildutako bertso uzta prestatzen ari da Bertsozale Elkarteak. Lan hau gautzatzea ez litzateke posible izango zuek, bertsozaleek, egindako biltze lanik gabe. Okerrik ez dela, eta hala eskatuz gero, Bertsozale Elkarteko bazkideek laster edukiko duzue eskutan.

## Poto-Finixa



Dena kontrolpean

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Hitzetik Hotzerak ordutegi berria

Bertsolari Txapelketa Nagusia bukatuta, Hitzetik Hotzerak berriz ere plazetako bertsoaldiak ekarriko ditu gure etxeetara. Urtea estreinatzearekin batera, ordutegia ere estreinatu du ETB1-eko programa ezagunak. Denboraldia bukatu artean, larunbat gauetan, 21:00etan izango da Eider Perezek gidatzen duen saioa.

DIHANA IGUARAN - AMAIUR LULUAGA

# AMARAUN

IRUNEZ IRADUN

Lanku  
KULTUR ZERBITZUAK

Kontrataziorako  
marketina@lanku.eus helbidera idatzi  
edo 675.716.472 telefonora deitu

PUBLIZITATEA